

213/2016 Ebazpena, 2016ko uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 3. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Apirilaren 22ko 125/2016 Ebazpenaren bidez, 3 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** 3. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2016ko uztailaren 18an indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 18an.

Osakidetza  
  
Jose Maria Argentea Macazaga  
IZENBURUAK  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD